

5. EBALUAKETAKO TRESNAK ETA PRODUKTUAK

5.1. TRESNAK

5.1.1. Adierazle sistema

Atal honetan gizarte zerbitzuen sistemako eskuhartzearen beharrak / populazioko sektoreak eta mugen gaineko gogoeta sartu behar dira.

SISTEMAREN ETA EGIN BEHARREKO LANAREN AURKEZPEN LABUR BAT.

Ondoren aurkeztuko dugun adierazle sistema gauzatzeko, ondorengo sistema eta adierazleak erabili dira:

- Inguru Irekiko Hezkuntzarako Programa Markoaren zirriborroko erakusle sistemak.
- Programan parte hartzeko udalek aurkeztutako eskaera inprimakian adierazten diren adierazleak.

Beraz, honako hauek jasotzen dira:

- Adingabeko bakoitzaren eta bere harremana gauzatzen den testuinguru bakoitzaren gaineko adierazleak.
- Udalerriko populazio osoari edo, udalerrian arreta jartzen den populazio multzoari buruzko adierazleak.

Azken hauek osatu eta aberastu egin dira eskaera inprimakia aplikatzen hasi denez geroztik. Ez dituzue, ordea, une honetan erabili behar. Amaierako txostenean txertatuko dira.

Adierazle sistemak erabiltzaileen egoera, une jakin batean, eta beren bilakaera ebaluatzeko aukera ematen du, hau da, programak eragina izan nahi duen faktore haien inguruan izan den eraginari eta eraginik izatea ezinezkoa den beste faktore haiei begira, izan den bilakaera ebaluatzeko aukera.

Une honetan, beraz, honakoa egin behar da.

- Datozen urteetan (eskuhartzea hasi edo eskuhartzearekin jarraitu behar duzuela) zuen eskuhartzearen xede izatea erabaki dituzuen adingabeko eta famili azpitalde haietan bizi diren** adingabeko eta famili edo bizikidetza unitate bakoitzaren gaineko informazioa jaso.
- Adingabekoen, beren familien eta harremanak dituzten bestelako testuinguruen inguruko oinarritzko lan lerro bat ezarri (hasierako egoera).
- Gutxienez, asteriskoaren ikurrarekin markatutako adierazleen gaineko informazioa bildu eta adierazle sistemaren gainontzeko zatia bete, beti ere, adingabeko, famili eta testuinguruen gaineko informazioa eskura daukazuen neurrian.

- D) Era berean, banako, taldeko, igarobideko edo komunitateko eskuhartzearen markoan zuen lanaren xede izango diren **testuinguru**en gaineko informazioa jaso behar duzue.

Kontuan izan, eskolaren, baliabide komunitarioen edo komunitatearen beraren, bere osotasunean, baliabideen inguruko adierazle kopuru handi bat ez dela zuzenean adingabeko jakin batekin lotzen. Baliabideetarako igarobide proiektuak proiektu komunitarioak,... ebaluatzeako balio dute eta ez dira, horrenbestez, adingabeko, famili bakoitzeko fitxan jasotzen, baina bai adierazle sistema orokorrean.

Lehenik, aipatutako adierazle hauen inguruan, zein den hasierako egoera zehaztu beharko litzateke, beti ere gizarte zerbitzuetako udal departamentuak eta zuek hezitzaileok daukazuen informazioaren arabera.

Dagokizuen laukian adierazi behar duzue, (zuen hezitzaileon jardueren eskaintza edo OGZetik -oinarrizko gizarte zerbitzuak- jasotako informazioa), zuen ikuspegitik eta iritzian, adingabekoaren edo dagokion testuinguruaren hasierako egoera hobekien erakusten duen adierazle multzoari dagokion zenbakia (1, 2 edo 3).

Ondoren, informazio hau, elkarriketak izatea erabaki dituzuen baliabideek (adingabeko azpitaldeen eta lehentasuna duten proiektuen arabera) eta familiek (aukera hori eman dezaketen neurrian) emandako informazioarekin erkatu beharko duzue. Baliabideekin izaten dituzuen elkarriketetan, aldi berean, baliabideak arrisku egoeran dauden adingabekoen ezaugarrietara zenbateraino egokitzen direnari buruzko informazioa jasotzen ahaleginduko zarete

Testuinguru bakoitzarekin, testuinguru horren inguruko adierazleak bakarrik erkatuko dituzue, eta informazioa duten haiekin bakarrik, ez guztiekin.

Aurkezten dizkizuegun adierazleak zerrenda orokorrak baino ez dira, gure ikuspegitik, adierazle bakoitza ebaluatzeako egokiak izan daitezkeen iturriak edo testuinguruak baino ez dira.

Nolanahi ere, ona litzateke, adingabekoen egoera ebaluatzeako iturriak anitzak izatea (adierazle bera, testuinguru batetik baino gehiagotik ebaluatzea, alegia). Hori da gure proposamena, baina adierazle batzuetarako bakarrik.

Baina, noski, testuinguru bati adingabeko baten egoera ebaluatzeako eskatzeko, derrigorrezkoa da horren gaineko informazioa ez ematea. Eta hori ez da adingabekoa edo familia errespetatzeko modu bat soilik, baizik eta testuinguruaren iritzia baldintzatzea eragozteko modua.

Testuinguruarekin egindako elkarriketen ondoren, testuinguru bakoitzari dagokion laukian, adingabekoaren hasierako egoerari buruzko iritzia jasoko duzue, beti ere, adierazle multzo horren arabera (1, 2 edo 3).

ADIERAZLE SISTEMAREN BESTE EZAUGARRIAK.

Sisteman mota honetako adierazleak bereizten dira:

- a) Ezaugarriak ezartzekoak: Eraginik izatea ezinezkoa den (adina, generoa, ezgaitasun kronikoak, gutxiengo etniko bateko kide izatea) edo eragina oso zeharreko bidetik izatea (etxebizitzaren metro karratuak,...) posible egiten duten alderdiei buruzkoak dira.
- b) Eraginekoak: programaren helburuko -xedea + hartzaileak- zati ez diren alderdiei buruzkoak dira; baina, era berean, eskuhartzeak nolabaiteko ondorio batzuk izatea posible egiten dituzten alderdiak (instituzionalizazioa, eskola atzerapena edo porrota,...).
- c) Arazoarekin lotutakoak: Programaren eskuhartzearen ondorioz espero diren amaierako aldaketei buruzkoak dira (testuinguru arautu eta egokitutakoetan txertatzea, beti ere, txertaketaz, adingabeak edo gazteak parte hartzen duen testuinguruen markoaren baitan, gaitasun orokor eta espezifikoen transferentzia eta garapena ulertuz).
- d) Hipotesiekin lotutakoak: Tarteko aldaketei buruzkoak dira, hala adingabeakengan nola testuinguruetan, programaren eskuhartzearen ondorioz espero direnak eta, normalean, adingabekoen kasuan, jardueren eskaintza propioaren markoan sortuko direnak.

Adierazleak, arazoarekin eta hipotesiekin lotutako edo arazoan eragina duten faktoreen adierazleetan banatzea, "helburuak hipotesien arabera formulatzeko sistema", azterketa (ebaluaketa) eta programaketarako tresna gisa sartzaren ondorio da, eskuhartzea ikerketa aplikatuaren garapenera, ikerketa-ekintza edo ekintza-gogoeta-ekintza eskemaren barneko ikerketara hurbiltzeko aukera ematen baitu.

Adierazle bat mota batekoa edo bestekoa izatea, programaren helburuaren zabaltasunaren araberrakoa da. Esate baterako, programa udal gizarte zerbitzuekin lotutako profesionalek, arrisku egoeran diren haur eta gazteen sektorean eta beren familien inguruan egindako eskuhartzeen, GGD eta GLK banatzearen inguruko eskuhartzeen multzo gisa ulertuko bagenu, arazoarekin lotutako adierazle bat izango litzateke, baina ez ezaugarriak ezartzeko adierazle bat.

Adierazleak, programaren xedearen muga edo mugaketa da. Hala, bada, adierazle sistema irakurriez gero, ondoriozta daiteke, esate baterako, noraino iristen den adingabea eta gazteen hezitzailearen famili eskuhartzea. Baina, programak, gizarte langileen, famili hezitzaile eta terapeuten,... famili eskuhartzea jasoko balu, adierazle sistema ere zabaldu egin beharko litzateke. Hau da epe ertainera erabaki den proposamena, baina, oraingoz, adierazle sistema, adingabea eta gazteen hezitzailearen inguruan bakarrik definitu da.

Adierazleak osatu egiten dira (azken batean adierazle elkarketak dira) eta, honek, jarraipen bat eta adingabekoen eta testuinguruen egoeran aurrerapen bat, progresio bat definitzeko aukera ematen du; baina, aldi berean, -maila batetik bestera igarotzeko baldintza bat baino gehiago betetzea jasotzen denean- baldintza guztiak betetzea exijitzen du.

Eta horrenbestez, bitarteko egoerak –mailen artean- izango dira, ezingo direnak jaso maila gehiago formulatzen ez diren bitartean. Etorkizunean, adierazle sistema ikuspegi honetatik berrikusi beharko da, baina, kontuan izan behar da, aldi berean, ez dela sistema konplexuegi bat egin behar.

Segur aski, egokiagoa izango da hiru maila baino gehiago ez zehaztea, horrela, mailaz igarotzeko baldintzak birformulatuz, sistema errealistago (bi urteko epearen barne izan daitezkeen aldaketak jasotzea da gauza) eta malguago bat egingo baita (adingabeko desberdinen ezaugarrietara egokitutakoak; esaterako, eskuhartzeak inadaptazio edo molda ezintasuneko egoeran dauden adingabekoekin egiten badira, agian, beharrezkoa izango dugu adierazle espezifikoak ezartzea).

Era berean, sistema berrikusten den unean, beharrezkoa izango da zenbait adierazle gehiago operatibizatzea. Nahiz eta, oro har, adierazleak formulatzera iritsi garen, kontuan izan behar da, ez direla, beti, jasotzen diren portaerak ahal den gehien operatibizatu, izan ere, sistema oraino probako fasean dago eta, beti, aldaketak egiteko aukera eman behar zaie profesionalei, arazoarekin lotutako portaeren multzo bati dagokion adierazlea ezartzeko unean.

Komenigarria da, ondoren egingo den sistemaren berriskuskapenari begira, talde bakoitzak, sistema aplikatzerakoan aurki ditzakeen zailtasunak eta aurre egiteko otutzen zaizkion irtenbideak idatziz jasotzea.

Bestalde, esku hartze bat ixteko, amaiera emateko, ez da beharrezkoa izango adingabekoaren egoera, arlo guztietako 3 mailan definitzea. Izan duen aurrerapenean oreka egoera batetara iritsi dela bermatzea da gauza, adingabekoak behar dituen mota orotako laguntza guztiak (hala pertsonalak, nola testuingurukoak) dituela egiaztatzea. Eta pixkanaka pixkanaka, maila pertsonalean eta testuingurukoan dauden elementu nagusiak aurkitzen joango gara, derrigorrez aldaketa bat izan behar duten elementuak, laguntza minimoak,... . Hau gutxienezkoa da, pertsona bakoitza berez baita mundu bat. Epe ertainerako joera, berriz, jasotzen diren adierazleen kopurua murrizten joatea da (oso garrantzitsua da adierazleak benetan adierazgarriak izatea).

Adierazleetan jasotzen diren egoerak edo ezaugarriak ez dira, ez eta bat bera ere, esku hartze bat garatzeko ezinbesteko baldintzak. Faktore desberdinen arteko elkarrekintza da eta desberdinak kasu bakoitzean; esaterako bazterketa prozesuak sor ditzaketanak, azkenean, inadaptazioa edo molda ezintasuna baitakarte.

Nolanahi ere, arlo baten baino gehiagotako faktoreak biltzea eta adingabeko edo gazteen familiak gizarte zerbitzuetako erabiltzaile edo GGD eta GLL jasotzea, lehentasunak ezartzeko irizpideak dira, baina beti ere, arrazoi horiek tarteko izan arren, gizarte zerbitzu komunitarioetako gizarte langileek egiten dituzten oharpenei jarraiki bakarrik egin behar dela lana ekidinez.

Beste alderdi garrantzitsu bat da, 3 mailak ez duela egoera ideal bat definitu behar, egoera on bat baizik eta, oro har, adierazleen jarraipen bat ezarri behar duela modu errealista batean, nerabeen eta gazteen gaur eguneko errealitateari begira eta arrisku egoeran edo moldaezintasun egoeran dauden adingabekoen errealitate zehatza kontuan izanik. Eta horregatik, egoera on horretan egoera idealak ez jasotzen ahalegindu gara bereziki; horrela

izango balitz, adingabekoengan, gazteengan eta testuinguruetan irudi ideal bat proiektatuko baikenuke, gizartean txertatutako pertsonen lortutakotik areago joango litzatekeena, gainera.

Adierazleek, esku hartzearen elkarrekintzako ereduari jarraiki, adingabekoen edo gazteen ezaugarri pertsonalak azaltzen dituzte, baina bai eta, beren bizitzako testuinguru desberdinen gaineko alderdiak eta programaren bidez eragina izan nahi den testuinguruen arteko elkarrekintzak ere.

Kontuan izan adierazleak ez direla termino negatibo edo positiboetan formulatzen eta, horrenbestez, ez dira arriskuaren adierazle gisa definitzen, normalizazio edo moldatze adierazleak ere bai baitira (adierazitako hau, lehiakortasun eredu adierazle sistemaren ereduari aplikatzearen ondorio da).

Adingabeko bakoitza eta testuinguru bakoitza jarraipen lerroaren puntu zehatz batean dago. Erantzuna behar duten beharrak izatea eta beren garrantzia, on gisa definitutako muturraren aldean hartzaileak kokatzen diren puntuak zehaztuko dute.

Adierazle batzuk arau honetako salbuespenak dira, ezaugarria agertzearen edo ez agertzearen aukera bakarrik jasotzen baita. Eta hau, ezaugarriak finkatzeko eta eragin adierazleetan gertatuko da gehienetan.

Era berean, adierazleak formulatzeko orduan, erabiltzaileen intimitatea errespetatzeko obligazioa hartu da kontuan. Hala, esaterako, zerbitzu jakin batzuk erabiltzea baino ez da jasotzean, instituzionalizazioa, ... azkeneko bi urteetan, adingabeko bat instituzionalizatuta egon arren, ez bada azkeneko bi urteetan egon, informazio hori ez da fitxan agertuko.

Gai edo alderdi garrantzitsu bat da, testuinguruen eta adingabeko edo gaztearen beraren parte hartzea adingabekoaren eta bere egoeraren ebaluaketan, baina testuinguruen kasuan, alderdi baten edo batzuen inguruan esku hartzen duten neurrian. Alabaina, hasieran, adierazleak, batez ere hezitzaileek eta gizarte langileek beteko dituzte, beren zerbitzuen eskaintzan oinarrituta.

Adierazleak, momentuz, arau iturrietan eta erkatutakoetan oinarrituz bakarrik ezarri dira.

Adingabekoen eta testuinguruen parte hartzea eta testuinguruen gaineko adierazleen izaera, adingabekoengan edo gazteengan bakarrik zentratuta ez daudenetan, programaren gizarte ekintzaren eredu oinarritzen da. Hezitzaileak adingabekoaren eta testuinguru desberdinen arteko bitartekaritza rol bat betetzen du, bere gizarteratzea erraztuz. Gauza da, ebaluaketan testuinguruak bakarrik ez parte hartzea, baizik eta esku hartzearen helburuak bereganatzea (familia, eskola, baliabide komunitarioak,...); hau ere, programaren gizarte ekintzaren eredu oinarritzen da.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da, adierazle sistemak, bakar bakarrik, esku hartzearen, populazio orokorraren ezaugarriak finkatzearen eta programaren emaitzekin lotutako (lorpenak eta eragina) alderdiak jasotzen dituela. Adierazle sistema orokor batek prozesu eta emaitzekin (jarduerak, zerbitzuak) lotutako alderdiak ere jaso behar ditu, baina bai eta, programaren kudeaketarekin lotutako alderdiak ere. Denbora igarotzen doala, mota honetako ezaugarriak dituen sistema bat izatea da helburua.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

	ESKU HARTZEA	KUDEAKETA
PROZESUAK		
EMAITZAK		
Produktuak		
Lorpenak		
Eragina		

Ondoren aurkezten den adierazle sistema orokorrari dagokionez, kontuan izan behar da, populazioaren, bere osotasunean, inguruko adierazleak edo gizarte komunitarioen populazio erabiltzailearen multzoa jasotzen duela. Kontuan izan behar da, era berean, programa udalerrri jakin batean ezartzeko unean erabakiak hartzeko edo programa modu orokor batean bideratzeko erabakiak hartzeko aukera ematen duela, bai eta testuinguruen inguruko adierazleak finkatzeko ere, adingabeko eta gazteak eta kide diren elkarbizitza unitateak xede dituzten testuinguruetan zentratutako adierazleak finkatzeko aukeraz gain.

Eranskinetan, banako ebaluaketa fitxa jasotzen dugu, adingabekoarengan eta bere bizikidetzan unitatean zentratuta dagoena.

ADIERAZLEAK UDALERRI MAILAN

Kasu bakoitzean adierazten da, datua populazio osoari (PO) buruzkoa den, programaren xede izan daitekeen populazioari buruzkoa (PX)¹, populazio erabiltzaileari buruzkoa, egun, programaren ardurapeko populazioari buruzkoa den (PE), eta datuen iturburua. Udalerriko populazio osoari buruzko datuak edo programaren xede izan daitekeen populazioari buruzkoak, komunitatearen azterketan jasotzen direnak dira eta populazio erabiltzaileari buruzko datuak, ebaluaketaren ondoriozkoak.

EZAUGARRIAK EZARTZEKO ADIERAZLEAK		
Udalerriko populazioaren bolumen osoa Programaren ardurako xede izan daitekeen populazioaren bolumen osoa (adingabeak, gazteak eta familiak –hartzaileak-). Programaren ardurapeko populazioaren bolumen osoa (adingabeak, gazteak eta familia erabiltzaileak)	PO PX PE	Eustat Udaletako GZ
Haur eta gazte populazioaren hazkunde / euste / beharpen joera (jaiotza tasa, migrazio saldoa, enplegu tasa edo enplegua hazteko aurreikuspena, babespen ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza).	PO	Eustat Udaletako GZ
Haur eta gazteen populazio piramidea (adin multzoka eta generoka; 11 eta 17 urte bitarteko populazioaren bolumena). Programaren ardurako xede izan daitekeen populazioaren piramidea (adingabeak, gazteak eta familiak –hartzaileak-). Programaren ardurapeko populazioaren piramidea (adin multzoka eta generoka), 11 eta 17 urte bitarteko gazteak xede diren populazioaren piramidea.	PO PX PE	Eustat Udaletako GZ
20 urtetik beherako seme-alabak dituzten familia nukleoen ikasketa maila, famili buruaren arabera (analfabetoak+ikasketa gabeak+lehen mailako ikasketak / ...).	PO	Eustat
Programaren ardurako xede izan daitezkeen familia nukleoen ikasketa maila, famili buruaren arabera. Programaren ardurapeko famili nukleoen ikasketa maila, famili buruaren arabera.	PX PE	Udaletako GZ
Aitaren, amaren edo famili buruaren kalifikazio maila / enplegurako sarbidea / diru sarrera erregular iraunkor eta nahikoak lortzea / bizikidetzaren unitateko kide guztien oinarritzko beharren estaldura.	PX PE	Udaletako GZ
Langabezia egoeran dauden pertsonak adin multzoka (langabezia tasa orokorra). Langabezia egoeran dauden pertsonak adin multzoka (populazio hartzaileak). Langabezia egoeran dauden pertsonak adin multzoka (ardurako populazioa).	PO PX PE	Eustat Udaletako GZ
Diru sarrera erregular, iraunkor eta nahikoak izatea / bizikidetzaren unitateko kide guztien oinarritzko beharren estaldura.	PX PE	Udaletako GZ
GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitateka azkeneko bi urtetan GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate hartzaileka azkeneko bi urtetan	PO PX	GFA-Gizartekintza Udaletako GZ

¹ Programaren “xede izan daitekeen populazioa”, departamentuaren,... aukeren arabera lehentasuna duten adingabeak, gazteak, familiak, baliabideak,... dira, eta ez esku hartzerik beharko luketen pertsona eta testuinguru guztiak.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate erabiltzaileka azkeneko bi urtetan	PE	
EZAUGARRIAK EZARTZEKO ADIERAZLEAK		
GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitateka azkeneko bi urtetan	PO	GFA-Gizartekintza
GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate hartzaileka azkeneko bi urtetan	PX	Udaletako GZ
GGL jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate erabiltzaileka azkeneko bi urtetan	PE	
ELZ jasotzea, familia edo elkarbizitza unitateka azkeneko bi urtetan	PO	GFA-Gizartekintza
ELZ jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate hartzaileka azkeneko bi urtetan	PX	Udaletako GZ
ELZ jasotzea, familia edo elkarbizitza unitate erabiltzaileka azkeneko bi urtetan	PE	
Bizi diren udalerriko zona (adingabekoak)	PX	Hezitzaileak
	PE	
Dabiltzan udalerriko zona (adingabekoak)	PX	Hezitzaileak
	PE	
Bizi diren udalerriko zona (familiak)	PX	Udaletako GZ
	PE	
20 urtetik beherako seme-alabak dituzten famili nukleoetako aiten/amen edo zaintzaile nagusien adin multzoak, famili buruaren arabera.	PO	Eustat
Aiten/amen edo zaintzaile nagusien adin multzoak, famili buruaren arabera.	PX	Udaletako GZ
Aiten/amen edo zaintzaile nagusien adin multzoak, famili buruaren arabera.	PE	
Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak (aita/ama edo zaintzaile nagusia)	PX	Osasun etxea
	PE	
Gizarteratzea eragozten edo zaintza ahalmena mugatzen dituzten gaitz kronikoak (aita/ama edo zaintzaile nagusia)	PX	Osasun etxea
	PE	
Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak (adingabekoak)	PO	Osasun etxea
	PX	
	PE	
Gizarteratzea zailtzen edo beren parte hartzea jardueretan baldintzatzen dituzten gaitz kronikoak (adingabekoak)	PO	Osasun etxea
	PX	
	PE	
Etxebizitzaren azalera (m ²), familiak edo elkarbizitza unitateak osatzen dituzten kideen kopuruaren arabera.	PE	Udaletako GZ
Familiaren edo elkarbizitza unitatearen tamaina.	PE	Udaletako GZ

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

EZAUGARRIAK EZARTZEKO ADIERAZLEAK		
Ama edo aitako familiak Ama edo aitako familiak eta arrazoa familia hartzaileetan (umerzurztasuna, bereizketa, seme-alaben kargu hartzen ez duen aita edo ama, instituzionalizazioa,...) Ama edo aitako familiak eta arrazoa familia erabiltzaileetan (umezurztasuna, bereizketa, seme-alaben kargu hartzen ez duen aita edo ama, instituzionalizazioa,...) Aita eta amaren falta (adingabekoa ...ren kargu) eta arrazoa (instituzionalizazioa, abandonua, umezurztasuna) familia hartzaileetan. Aita eta amaren falta (adingabekoa ...ren kargu) eta arrazoa (instituzionalizazioa, abandonua, umezurztasuna) familia erabiltzaileetan. Berriro osatutako bikotea familia erabiltzaileetan. Familia nukleo baten baino gehiagoren elkarbizitza, familia erabiltzaileetan.	PO PX PX/ PE	GFA-Gizartekintza Udaletako GZ
Gutxiengo etniko bateko kide izatea (familia hartzaileetan). Gutxiengo etniko bateko kide izatea (familia erabiltzaileetan).	PX/ PE	Udaletako GZ
Gutxiengo etniko bateko kide izatea (adingabeko hartzaileak). Gutxiengo etniko bateko kide izatea (adingabeko erabiltzaileak).	PX/ PE	Hezitzaileak
ERAGINAREN ADIERAZLEAK		
Larrialdietako etxebizitzak erabiltzea azkeneko bi urteetan Larrialdietako etxebizitzak erabiltzea azkeneko bi urteetan (emakumezkoak adingabekoekin)	PO PX PE	GFA-Gizartekintza Udaletako GZ
Hezkuntza eta/edo familia terapiako programetan parte hartu izana, azkeneko bi urtetan. Hezkuntza eta/edo familia terapiako programetan parte hartu izana, azkeneko bi urtetan (familiak edo elkarbizitza unitateak adingabekoekin).	PO PX PE	GFA-Gizartekintza Udaletako GZ
Gazte enpleguaren / enplegurik ezaren maiztasuna eta tasa (16-29 urte).	PO	Eustat
Drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta legez kanpoko drogak) 11 eta 17 urte bitarteko adin multzoan.	PO	Drogamenpekota sunaren prebentziorako teknikaria.
Auzitegian espedientea irekita daukaten adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebak (azkeneko bi urtetan).	PX PE	Auzitegia
Anai-arreba instituzionalizatuak (azkeneko bi urtetan).	PX PE	Udaletako GZ

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Famili nuklearreko kide instituzionalizatuak (azkeneko bi urtetan).	PX PE	Udaletako GZ
Etxebizitzaren baldintzak (baldintza higienikoak eta segurtasunekoak, konponketak, oinarritzko ekipamendua –erabilgarritasuna eta funtzionamendua-).	PX PE	Udaletako GZ
Aitaren edo amaren falta/presentzia familian (elkarrekin bizi direnean).	PX PE	Udaletako GZ
Familiaren edo elkarbizitza unitatearen harreman sarea (zabaltasuna, erreferentzia positiboko eta laguntza eman dezaketen pertsonak izatea/ez izatea).	PX PE	Udaletako GZ
Udalerrri mailako ardurako bestelako sistemen laguntza eskaeren maiztasuna eta egokiera maila (familiak).	PX PE	Ikastetxeak, Osasun etxea
Tratu txarren edo abandonu fisiko zein emoziozkoaren aztarnak (adingabekoak).	PX PE	Hezitzaileak Udaletako GZ
Sexu abusuaren aztarnak (adingabekoak)	PX PE	Hezitzaileak Udaletako GZ
Lan esplotazioaren aztarnak (adingabekoak).	PX PE	Hezitzaileak Udaletako GZ
ERAGINARI BURUZKO ADIERAZLEAK		
Espedientea irekita izatea Adingabekoen Auzitegian azkeneko bi urtetan (adingabekoak).	PO PX PE	Auzitegia Hezitzaileak
InstituzionalizaZioa azkeneko bi urtetan (adingabekoak)	PO PX PE	Udaletako GZ Hezitzaileak
Enplegua / enplegurik eza azkeneko bi urtetan zehar (hezkuntzatik kanpoko 15 urtetik gorakoak)	PX PE	Hezitzaileak
Eskola etekina	PO PX PE	Hezkuntza Saila Hezitzaileak
Ikasketa maila (adingabekoak)	PX PE	Hezitzaileak

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

ARAZOEKIN, SOMATUTAKO BEHARREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK		
Gaitasun, jarrera eta interes orokorren transferentzia, orokortzea eta garapena (elkarrekin lotutako adierazle multzoaren bidez).	PE	Testuinguruak
Gaitasun espezifikoaren transferentzia, orokortzea eta garapena (elkarrekin lotutako adierazle multzoaren bidez).	PE	Testuinguruak
Testuinguruaren jabetzea, adingabekoaren garapenaz eta portaeraz.	PE	Testuinguruak
TESTUINGURUTAN TXERTATZEARI BURUZKO ADIERAZLE OROKORRAK		
Testuingurua adingabekoaz jabetzea eta rolak hari ematea	PE	Testuinguruak
Adingabekoaren testuinguruaren barneko portaeraz jabetzea, adingabekoa bera.	PE	Adingabekoa
Adingabekoa testuinguruaz jabetzea.	PE	Adingabekoa
Testuinguruak proposamenak bereganatzea eta baztertzea.	PE	Testuinguruak - adingabekoa- Hezitzaileak
Adingabekoaren eta testuinguruaren arteko harremanak.	PE	Testuinguruak - adingabekoa- Hezitzaileak
Adingabekoaren lotura erreferentziako pertsonekin.	PE	Testuinguruak - adingabekoa- Hezitzaileak
Adingabekoaren harreman sarearen zabaltasuna.	PE	Testuinguruak- Hezitzaileak
TESTUINGURUTAN TXERTATZEARI BURUZKO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK		
Familiaren barneko txertatze maila		
Familiari eskainitako denbora eta familiarekin burututako jarduerak.	PE	Familia- adingabekoa- Hezitzaileak
Aitak/amak jarritako ordutegia betetzea.	PE	Familia
Adingabekoaren laguntza etxeko lanetan.	PE	Familia
Txertatze maila hezkuntzako baliabide formal, arautu eta ez arautuetan.		
Ikastetxera joatea (absentismoa).	PX PE	Ikastetxeak
Puntualtasuna jardueretara joateko orduan (ikastetxean egonda).	PE	Ikastetxeak
Eskolako lanak egitea.	PE	Ikastetxeak

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

TESTUINGURUTAN TXERTATZEARI BURUZKO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK		
Laneko esperientzia / esperientziarik eza		
Jarraipena izatea hezkuntza prozesuetan edo enplegurako sarreran, lan aurreko esperientzian oinarrituta.	PE	Hezitzaileak eta/edo ikastetxeak
Enpleguaren bilaketa aktiborako motibazioa eta trebetasunak.	PE	Hezitzaileak eta/edo ikastetxeak
Lan aurreko jarduerarekin lotutako gaitasun espezifikoak jasotzea eta gaitasun orokorrak (puntualitate ohiturak, ordena, ..., eta komunikazio eta harreman trebetasunak).	PE	Hezitzaileak eta/edo ikastetxeak
Txertatze maila, harreman sare ez-formaletan		
Adingabekoaren harreman sare ez-formalen egonkortasuna, zabalpena eta egokiera (bere adineko lagunak).	PE	Hezitzaileak
Lagunekin burututako jarduera motak.	PX PE	Hezitzaileak
Txertatze maila, hezkuntza baliabide ez-formaletan.		
Parte hartzea antolatutako denbora libreko jardueratan.	PE	Hezitzaileak
Parte hartzea autokudeatutako proiektuetan (antolatu, parte hartu, kudeatu, taldean jarraitzea urtea igaro ondoren).	PE	Hezitzaileak

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

HIPOTESIEKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK		
1. multzoa. Ezagupenak eta gaitasunak lortzea, eta kale hezitzaileen eskaintzaren testuingurutan txertatzeko behar diren jarrerak eta oinarrizko interesak garatzea.		
Eskura dagoen informazioa (adierazgarria eta nahikoa)		
Informazioa edukitzea eta erabiltzea.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Interesak lantzea	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Iritzi propioa eta irekiera maila beste ikuspegi alternatiboen aurrean.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Norbere buruaren zaintza, oinarrizko ohiturak, harreman trebetasunak eta bestelako gaitasun transferigarriak		
Adingabekoaren itxura onartzea / baztertzea testuinguruek	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Otordu beroak (maiztasuna eta orduak)	PE	Familia
Otorduetan emandako denbora eta ardura.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Dietaren oreka, barietatea eta egokiera adinari.	PE	Familia
Hortzak garbitzea otorduaren ondoren eta eskuak garbitzea aurretik (maiztasuna).	PE	Hezitzaileak - familia, denbora libreko baliabideak
Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren maiztasuna eta neurria (adingabekoak)	PX PE	Hezitzaileak
Legez kanpoko drogen kontsumoaren maiztasuna eta neurria (adingabekoak).	PX PE	Hezitzaileak
Patrikako diruaren administrazioa.	PE	Hezitzaileak - familia
Puntualtasuna ikastetxera edo lantokira joaterakoan eta 8 ordutako atsedena.	PE	Zentroak - familia
Jabetza pertsonalen zaintza.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Beste pertsonen jabetzaren zaintza.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Ordena (arropa, bere jabetzako gauzak,...)	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Bere intereseko jarduerak burutzeko antolaketa gaitasuna, beste oinarrizko batzuk ere egingo direla bermatuz.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Itxaropenak, gogoko gauzak eta interesak (dituen ala ez, jasotzea, autoerrefuertzoa)	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Emozioen, beharren eta interesen adierazpena.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Lankidetzat taldeko jarduerak burutzea.	PE	Hezitzaileak - testuinguruak

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Errefortzuaren atzerapena	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Tolerantzia frustrazioaren aurrean	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Jokabidea gatazken aurrean	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Arauk errespetatzea	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
Hitza betetzea	PE	Hezitzaileak - testuinguruak
HIPOTESIEKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK		
Eskolako probetxamendua; norbere aukeretara egokitzeko gaitasun espezifikoak		
Dedikazioa ikasketetan eta laguntza edo gainbegiraketaren beharra.	PE	Eskola laguntzako baliabideak-familia
Kontzentrazio gaitasuna eta ikasteko teknikak erabiltzea.	PE	Eskola laguntzako baliabideak-familia
Denbora libreko jardueretan parte hartzeko gaitasun espezifikoak.		
Parte hartzea jardueren eskaintza propioan, eskaintza irekian eta interesa baliabide arautuetara biltzeko.	PE	Hezitzaileak
Gaitasun espezifikoak, gauzatu nahi duen jarduerarekin loturik.	PE	Hezitzaileak – denbora libreko baliabidea.
2. multzoa. Adingabekoak eta gazteek bizitako arrisku egoerei aurre egiteko erantzun propioak sortzea (komunitatea).		
Testuinguruen/baliabideen edo hezkuntza programen eta arrisku egoeran bizi diren adingabekoen, gazteen eta familien arteko egokiera.		
Arrisku egoeran diren adingabeko eta/edo familiei zuzendu eta udalerrian dauden baliabideak (maiztasuna).	PO	Hezitzaileak
Baliabide egokituak (maiztasuna)	PO	Hezitzaileak
Baliabide arautuak eta egokituak (maiztasuna)	PO	Hezitzaileak
Programa ezagutzen eta lankide izateko prest dauden baliabideak (maiztasuna)	PO	Hezitzaileak
Lankidetzarik ematen duten baliabideak (maiztasuna)	PO	Hezitzaileak
Informazio kanpaina egokituak egitea.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa, familia
Baliabide arautuen eta egokituen eskaintzaren eta eskaeraren, eta banaketa geografikoaren arteko egokiera.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Jardueren eta adingabekoen interesen arteko egokiera.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Jardueren eta adingabekoen gaitasunen arteko egokiera.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Jardueren eta familien egoera ekonomikoaren arteko egokiera.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa, familia
Hezleen, hezitzaileen eta mutikoen eta adingabekoen hizkuntzen arteko egokiera.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Arauen konplexutasuna eta zabaltasuna.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Argitasuna mugak azaltzean eta bateratasuna gatazka egoerei aurre egiteko orduan.	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Taldearen homogeneousutasuna / heterogeneousutasuna –adingabekoak eta hezitzaileak- (gizarte egoera).	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Adingabekoen parte hartzea jardueren diseinuan, martxan jartzean, gauzatzean eta ebaluaketan	PX	Hezitzaileak, adingabekoa
Ikastetxearen neurriak, adingabekoen aniztasuna eta segimendu sistematikoaren tratamendurako (ikastetxetarako berezia).	PE	Tutorea
HIPOTESIEKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK		
3. multzoa. Familiaren eta eskolaren eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea.		
Familia – eskola harremana		
Ikasteko toki finko eta egoki bat izatea	PE	Familia
Ikastea bultzatzea eta eskolako lanak gainbegiratzea.	PE	Hezitzaileak, adingabekoa, familia
Bikotearen eta tutorearen arteko bilerak egitea, baten zein bestearen ekimenez antolatutakoak.	PE	Tutorea , familia
Eskolatzearen beharraz jabetzea eta adingabekoari garrantzia adieraztea familiak berak.	PE	Hezitzaileak, tutorea
Komunitatea – familia harremana		
Familiaz jabetzea baliabide komunitarioak eta bizilagunak.		Baliabideak, bizilagunak
Familia – bizilagunak harremanak		Familia, bizilagunak
Baliabideei buruzko informazioa izatea eta bertara iristeko moduen berri izatea familiak	PE	Familia
Komunitatearen sentsibilizazioa		
Arrisku egoeran diren adingabeko eta/edo familiak bere baitan hartzen dituzten baliabideen kopurua.	PX	Udal Gizarte Zerbitzuak eta Hezitzaileak
Arrisku egoeran diren adingabeko eta/edo familien problematikaren barneko alderdi espezifikoetarako buruz, komunitateak duen ezagupena eta adingabekoak eta/edo familiak testuinguru espezifikoetan biltzea zenbateraino onartzen duen.	PE	Udal Gizarte Zerbitzuak eta Hezitzaileak

PROGRAMAREN XEDE DIREN ADINGABEKOEENGAN ETA TESTUINGURUTAN ZENTRATUTAKO ADIERAZLEAK (ez bakarrik hezitzaileek).

EZAUGARRI OROKORRAK EZARTZEKO ADIERAZLEAK

- Aitako edo amako familia (arrazoia adierazi: umezurztasuna, bereizketa, instituzionalizazioa, kargu hartzen ez duen gurasoa,...; eta zaintzaile nagusiaren generoa) / berriro osatutako bikotea / aitaren eta amaren falta (adingabekoa ...ren kargu) / familia nukleo baten baino gehiagoren arteko elkarbizitza.
- Adingabekoaren edo gaztearen adina.
- Adingabekoaren edo gaztearen generoa.
- Gurasoen edo zaintzaile nagusien adina.
- Bizi den udalerriko zona
- Adingabekoa edo gaztea ibiltzen den udalerriko zona.
- Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa, aita/amarengan edo zaintzaile nagusiarengan (ezgaitasuna adierazi eta nork jasaten duen).
- Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa, adingabekoarengan edo gaztearengan
- Aitaren/amaren edo zaintzaile nagusiak jasan ditzaketen gaitz kronikoak, gizarteratzea edo zaintza ahalmena eragozten duten gaitzak.
- Adingabekoaren gaitz kronikoak, beren gizarteratzea zailtzen dutenak, beren parte hartzea jardueratan baldintzatzen,...
- Gutxiengo etniko bateko kide izatea.
- Adingabekoa edo gaztea bizi den etxebizitzaren azalera (m2)
- Familia edo elkarbizitza unitateko kideen kopurua.
- Familia buruaren eta ezkontidearen ikasketa maila.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

ADIERAZLEAK			TESTUINGURUAK				
1	2	3	EP	E	F	AG	BK ²
FAMILIA							
Ez aitak, ez amak –edo famili buruak– ez dute nahikoa kalifikazio mailarik, lan merkatuan sartzeko adinakoa.	Aitaren edo amaren –edo familia buruaren– kalifikazio mailak ez diete beren lanean gora egiteko eta beren sarrerak hobetzeko aukerarik ematen, sarrerak, famili unitateko kide guztien oinarritzko beharrak estaltzeko adinakoak ez izan arren.	Aiten/amen –edo famili buruaren– kalifikazio maila nahikoa da enplegurako aukera izateko eta famili unitateko kide guztien beharrak estaltzeko adinako sarrera erregular eta iraunkorrak lortzeko eta eusteko aukera ematen die.					
Lana egiteko adinean dauden familiako kide guztiak langabeziako egoeran daude eta ez dituzte diru sarrerarik edo, ezkutuko ekonomiako jardueren bidez lortzen dituzte beren diru sarrerak.	Lana egiteko adinean dagoen familiako kide batek, behintzat, modu “erregular” batean lortzen eta irabazten ditu bere diru-sarrerak (ez ezkutuko ekonomiako jardueren bidez –besteen konturako kontratua, autonomia,...-)	Familiak nahikoa diru sarrerak ditu familiako kide guztien oinarritzko beharrak estaltzeko (elikadura, jantzia, oinetakoak, garbitasuna, hezkuntza, osasuna, aisialdia,...) eta diru sarrerak modu erregular eta iraunkorrez izaten ditu.					
Familiak edo elkarbizitza unitateak gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera jaso du azkeneko bi urtetan, nahiz eta tarteka –eta jasotzen jarraitzen du-.	Familiak edo elkarbizitza unitateak gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera jasotzen du	Familiak edo elkarbizitza unitateak ez du gizarteratzeko gutxieneko diru sarrerarik jaso azkeneko bi urtetan					
Familiak edo elkarbizitza unitateak gizarte larrialdietarako laguntza jaso du azkeneko bi urtetan, nahiz eta tarteka –eta jasotzen jarraitzen du-.	Familiak edo elkarbizitza unitateak gizarte larrialdietarako laguntza jasotzen du	Familiak edo elkarbizitza unitateak ez du gizarte larrialdietarako laguntza jaso azkeneko bi urtetan					
Familiak edo elkarbizitza unitateak etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso du azkeneko bi urtetan, nahiz eta tarteka –eta jasotzen jarraitzen du-.	Familiak edo elkarbizitza unitateak etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen du	Familiak edo elkarbizitza unitateak ez du etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso azkeneko bi urtetan					

² EP = Eskaintza propioa (hezitzaileak, gizarte langileak,...); E = Eskola; F = Familia ; AG= Adingabekoaren txostena; BK = Adingabekoak parte hartzen duen bestelako Baliabide Komunitarioak

ERAGINARI BURUZKO ADIERAZLEAK³

ADIERAZLEAK			TESTUINGURUAK				
1	2	3	EP	E	F	AG	BK
FAMILIA							
Emakumeak eta seme-alabek larrialdietarako etxebizitza bat erabili dute azkeneko bi urtetan – eta erabiltzen jarraitzen dute-.	Emakumeak eta seme-alabek larrialdietarako etxebizitza erabiltzen dute	Emakumeak eta seme-alabek ez dute larrialdietarako etxebizitza bat erabili azkeneko bi urtetan					
Familiak edo elkarbizitza unitateak hezkuntzako eta/edo familia terapiako programetan parte hartu du azkeneko bi urtetan –eta parte hartzen jarraitzen du-.	Familiak edo elkarbizitza unitateak hezkuntzako eta/edo familia terapiako programetan parte hartzen du.	Familiak edo elkarbizitza unitateak ez du hezkuntzako eta/edo familia terapiako programetan parte hartu azkeneko bi urtetan					
Adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebaren batek espedientea irekita eduki du Auzitegian azkeneko bi urtetan –eta irekita dauka-.	Adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebaren batek espedientea irekita dauka Auzitegian.	Adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebek ez dute espedientea irekita eduki Auzitegian azkeneko bi urtetan					
Adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebaren bat instituzionalizatuta egon da azkeneko bi urtetan	Adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebaren bat instituzionalizatuta dago babespen edo erreforma zentro batean.	Ez da adingabekoaren edo gaztearen anai-arrebarik instituzionalizatuta egon babespen edo erreforma zentro batean azkeneko bi urtetan.					
Familia nuklearra bere osotasunean dago instituzionalizazio prozesu batean murgilduta.	Famili nuklearreko kideren bat instituzionalizatuta dago (kartzela, komunitate terapeutikoak, babespen eta erreforma zentroak,...)	Ez da familia nuklearreko kiderik instituzionalizatuta egon azkeneko bi urtetan.					

³ Eragin adierazleek, ebaluaketaren zati badira ere, ez dira Programaren helburuaren zati. Adierazle batzuk adingabekoa babespen edo erreforma zentro batean sartzea beharrezkoa den egoerekin daude lotuta.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

ADIERAZLEAK			TESTUINGURUAK				
1	2	3	EP	E	F	AG	BK
FAMILIA							
Familiaren etxebizitzak ez ditu segurtasun eta higiene baldintza minimoak betetzen (zaborra, izurriak,...) edo konponketak behar ditu (pintaketa, obrak, instalazioak – argia, ura, beroketa-, altzariak,...) edo oinarritzko ekipamendua falta zaio.	Etxebizitza zikina eta desordenatua dago, baina segurtasun eta higiene baldintza minimoak betetzen ditu, oinarritzko ekipamendua dauka eta ez du konponketen beharrik.	Etxebizitza garbia eta ordenatua dago, altzariek ez dute konponketen beharrik, ez dago narriatutako instalaziorik eta oinarritzko ekipamendua dauka (hozkailea, sukalde, labea, plantxa, dutxa,...) funtzionamendu egoera onean.					
Aitaren edo amaren falta denbora luzean.	Aitaren edo amaren falta denbora laburrean baina maiztasunez, edo arratsaldean eta/edo goizean ez egotea lana dela eta.	Aitaren eta amaren presentzia.					
Familiaren harreman sarea oso txikia da (familia handia) eta ez du erreferentzi positiboko edo laguntzako pertsonarik.	Familiaren harreman sarea txikia da (familia handia eta bestelako harreman ez formal eta ez iraunkorra) eta ez du laguntzako pertsonarik.	Familiaren harreman sarea handia da (familia handia eta sare ez formal iraunkorra), eta erreferentzia positiboko eta laguntzako pertsonak ditu. Familiak ere bere ekarpena egiten du harreman sare horretan (ez du laguntza bakarrik jasotzen).					
Maila lokaleko bestelako ardura sistemek (eskolak eta/edo osasun etxeak) adierazten dute, familiak edo bizikidetza unitateak, gutxienez sei hilabetez behin, zerbitzuaren eskaintzari edo erantzukizunari egokitzen ez zaizkion eskaerak egiten dituela.	Maila lokaleko bestelako ardura sistemek (eskolak eta/edo osasun etxeak) ez dute adierazten, gutxienez sei hilabetez behin, egokitzen ez zaizkion eskaerak jasotzen dituztenik familiaren edo bizikidetza unitatearen aldetik.	Maila lokaleko bestelako ardura sistemek adierazten dute, gehitu egin direla zerbitzuaren eskaintzari eta erantzukizunari egokitzen zaizkion ardura eskaerak.					

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

ADIERAZLEAK			TESTUINGURUAK				
1	2	3	EP	E	F	AG	BK
FAMILIA							
Tratu txar edo utzikeria fisikoko aztarnak daude.	Tratu txar edo abandonu emozionaleko aztarnak daude.	Ez dago tratu txar edo utzikeria fisikoko edo abandonu emozionaleko aztarnak.					
Sexu abusuko aztarnak daude.		Ez dago sexu abusuko aztarnak.					
Lan esplotazioko aztarnak daude.		Ez dago lan esplotazioko aztarnak.					
ADINGABEKOAK							
Adingabekoak edo gazteak espedientea irekita eduki du Auzitegian azkeneko bi urtetan –eta irekita dauka-.	Adingabekoak edo gazteak espedientea irekita dauka Auzitegian	Adingabekoak edo gazteak ez du espedientea irekita eduki Auzitegian azkeneko bi urtetan.					
